



<b>Ekipoa</b>	<b>NO<sub>x</sub> emisio gutxiko hidrogeno-erregailuak</b>
<b>Kodea</b>	D-4036
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Erregailuetan erregai fosilak erabiltzeari lotutako CO <sub>2</sub> emisioakdeuseztatzea.
<b>Honetan datza:</b>	<p>Hidrogeno-errekuntzako sistemek erregailuak eta kontrol-ekipoak dituzte, eta hidrogeno puruarekin, eta hidrogenoaren eta gas naturalaren arteko nahasketen edozein ehunekorekin lan egin daiteke.</p> <p>Ohiko errekuntza-sistema batek honako hauek ditu:</p> <p>Kontrol-panel bat edo gehiago, fluxua modu estekiometrikoan neurtzeko, eta erregaiaren (gas naturala, hidrogenoa, etab.) eta erregarriaren presioa kontrolatzeko.</p> <p>- Oxierrekuntzako erregailu bat edo gehiago, erregaia eta erregarria nahasten dituztenak, eta, ondoren, erreakzionatu egiten dute errekuntza-prozesua erraztuz etaugar egonkor bat sortuz.</p> <p>Hidrogeno-sugarraren tenperatura altuak (gas naturalarena baino 170 K handiagoa, gutxi gorabehera) NO<sub>x</sub> sortzea errazten du; beraz, aplikatzekoa den indarreko araudiak ezarritako mugak gainditu ahalko lirateke. Horregatik, teknologiak soluzio hauetakoren bat izan behar du kutsatzaile horien emisioak gutxitzeko edo modu baliokidean NO<sub>x</sub> emisioak gutxitzen dituen bestelako teknologia-soluzioen bat izan beharko du:</p> <p>a) Oxierrekuntzako erregailuak. Airearen ordeztu, oxigenoa erabiltzen dute erregarri gisa, eta, beraz, ez dute nitrogenorik behar eta NO<sub>x</sub> emisiori batere ez dute. Teknologia horrek, gainera, efizientzia energetiko gehigarria du, nitrogenoa eta NO<sub>x</sub> emisioak ezabatzen direnez, gas horietan ez baita energia termikorik alferrik galtzen.</p> <p>b) Gasen birzirkulazio-teknologiak. Horiekin, sugarraren tenperatura gutxitzen da, eta, horrenbestez, aireratutako NO<sub>x</sub> kantitatea ere bai.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	Teknologia hau errekuntza-prozesuak dituzten sektore guztietan aplikatu daiteke, besteak beste, honako hauetan: Industria kimikoa (EJSN 20), Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa (EJSN 22), Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (EJSN 23), Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa (EJSN 24), beste batzuen artean.